

NAHI BAINA EZIN

1

Larogeita bi urte lepuan, lepuan (3)
baina ni neure lekuau.
Pepantoni, Pepantoni,
Jaunak emondakoaz
pozik nago ni (2)

2

Moldau ezin buruko moinue, moinue(3)
baina maite dot soinue.
Estibalitz, Estibalitz,
zu bai ondo hau dana
eztia balitz.

3

Benidorren badago aukera, aukera (3)
baina kaxkajo norbera.
Joxtomingo, Joxtomingo,
zer zabiltz ez zuringo
ta ez gorringo (2)

4

Hemen zerua, han be zerua, zerua (2)
ez da gauza segurua.
Ai, Pantxike, ai Pantxike,
zeuretzat da ta kontuz
ibili zaite (2)

5

Gizon guztiok gara egarri, egarri (3)
baina nun da asegarri?
Gergorio, Gergorio,
hemen mundu osoak
ez dau balio (2)

6

Bizian Gora dago jarria, jarria (3)
hau da gure iturria.
Isidora, Isidora,
gure iturria da
Bizian Gora (2)